



Erregistro Zibilaren gida

5

Justiziaren Oinarriak

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE
SEGURANTZA SAILA
Justizia Administrazioan
Harremanetarako Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,
EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL
Dirección de Relaciones con la
Administración de Justicia

1. Erregistro Zibila



I. Kontzeptua eta funtzioak

Justizia Ministerioaren menpeko artxibategia da (estatu osorako), eta pertsona fisikoen egoera zibilari buruzko gertakariak eta Legeak ezartzen dituen gertakariak inskribitzeko erabiltzen da.

Justizia Jauregietan eta Bake-Epaitegietan funtzio horiek betetzen dituzten bulegoei horrela deritze.

Beraz, Erregistro Zibilean ondoko gertakariak inskribitzen dira:

- 1- Jaiotza.
- 2- Seme-alabatasuna: Biologikoa eta Adopziozkoa.
- 3- Izena eta Abizenak.
- 4- Emantzipazioa (16 urtetik aurrera).
- 5- Pertsonen gaitasunaren aldaketak (adibidez, pertsona bat ezgaitu-tzat jotzen duen Lehen Auzialdiko Epailearen ebazpena inskribituko da).
- 6- Absentzia-adierazpenak eta heriotza-adierazpenak.
- 7- Herritartasuna eta auzotartasun zibila.
- 8- Guraso-agintea, tutoretza.
- 9- Ezkontza.
- 10- Heriotza.
- 11- Aitatasun-aitorpena.
 - Inskripzioak dagozkion erregistro-liburuetan egiten dira.
 - Erregistro Zibilaren funtzioak, Erregistro Zibilaz arduratzen den Lehen Auzialdiko Epaileak (Magistratuak) betetzen ditu, bai eta Bake-Epaileak ere, hark esku ematen dionean. Bulego horren arduradunak Justizia-Administrazioko funtzionarioak dira (Ofizialak, Laguntzaileak eta Agenteak, eta Epaileari laguntzen dion Idazkaria).
 - Erregistro Zibileko egoitzak, Justizia-Jauregietako lokaletan daude, eta herrialde txikietan egoitza hori Bake-Epaitegiko edo Udaletxeko lokaletan dago.
 - Erregistroa publikoa da, hau da, edozein herritar edo agintari erregistrora joan daiteke Liburuak ikustera edo pertsona fisikoen egoera zibilari buruzko datuen ziurtagiriak edo informazio-oharrak eskatzera (adibidez, jaiotza-agiria, ezkontza-agiria, heriotza-agiria eta abar eskatzera).
 - Erregistroko inskripzioen publikotasuna kasu askotan mugatuta dago, pertsonen intimitatea errespetatu beharra dagoelako (adibidez, ezkontzarik gabeko seme-alaba baten inskripzioa, edo ezkontza baten baliogabetasunaren arrazoiak, horiek zabaltzea

interesdunentzat gogaikarria izan daitekeelako). Kasu horietan, legearen arabera, Epaileak eska-tzaileari eskaera hori espreski baimendu behar dio, eskatzaileak persona jakin baten intimitatea ukitzen duten datuak ezagutzeko legezko interesa duela egiaztatu ondoren.

- Erregistro Zibilean, ziurtagiriak eta inskripzioak dohainik ematen dira.



II. Erregistro zibilaren antolaketa

a) Erregistro-Motak, lurraldearen arabera:

- Erregistro Zibil Zentrala, estatuko lurralde osorako bakarra (egoitza Madrilan dago).
- Udaletako Erregistro Zibilak, Lehen Auzialdiko Epaileari dagokion eskumen arruntekoa, edo Bake-Epaileari dagokiona, haren ordezkari gisa.
- Kontsuletxeetako Erregistroak, atzerrian bizi diren espainiarrentzat, karrera diplomatikoa duen funtzionario baten kargura. Kasu horietan, egiten diren inskripzio guztien kopia bat Erregistro Zibil Zentralera bidali behar da.

b) Erregistroa lau sekziotan banatuta dago: jaiotzak, ezkontzak, heriotzak eta legezko tutoretza eta ordezkariak.





III. Jaiotza-Adierazpena

Zer da eta zer helburu du?

Erregistro Zibilaren aurrean pertsona baten jaiotzari buruz egiten den jakinarazpena (berri ematea) da, jaiotza dagokion inskripzioarekin adieraziz.

Inskripzio horretatik aurrera, pertsonaren edozein gorabehera pertsonal eta familiakoa (adopzioa, abizenak aldatzea, eta abar) Erregistro Zibilean adierazita geratuko da.

Noiz egin behar da?

- Jaiotza-inskripzioa nahitaezkoa da, eta pertsona jaio ondorengo 24 ordu eta 8 egunen bitarteko epean egin behar da.
- Ezinbestean, epe hori 30 egun arte luza daiteke.
- Epe horietatik kanpo, inskripzioa egin aurretik Espediente bat tramitatu beharko da (ohiz kanpoko kasuak).

Nork egin behar du?

- Aitak, amak edo biok elkarrekin, seniderik hurbilenak, edo bestela, jaiotza gertatu denean bertan zegoen edozein pertsona adindun batek.

Non egiten da inskripzioa?

- Jaioterriko edo gurasoak bizi diren herriko Erregistro Zibilean.
- Jaiotza atzerrian gertatzen bada, inskripzioa dagokion Kontsuletxe edo Enbaxada Espainiarrean egingo da.

Inskribitzeko beharrezkoak diren agiriak

Medikuaren edo jaiotzan lagundu duen emaginaren edo Osasun Lagun-tzaile Teknikoaren ziurtagiria eraman behar da Erregistrora, bai eta familia liburua ere, bertan jaiotza idazteko.

Ezkontzarik gabeko seme-alabaren jaiotza inskribitzea

- Soil-soilik aita edo ama ezkongaiaren abizenekin inskribituko da (normalki, abizenen ordena aldatzen da. Adibidez: ama Perez Gomez bada, seme-alabaren abizenak Gomez Perez izan daitezke).
- Beste gurasoak seme-alabatzat aitortzen badu, bere lehen abizena izan dezake.

Jaiotza goian aipatutako epeetatik kanpo inskribitzea

espediente bat egin beharko da haurren jaiotza inskribitzeko.

Adibideak

1) Guruztetako Ospitalean seme-alaba bat izan dut eta Bilbon bizi naiz; Bilbon jaioa bezala inskribitu al dezaket?

Bai. Legeak hori baimentzen du, kasu horretan Bilbo bere gurasoen bizilekua delako, haurra guruztetan jaio den arren.

2) Nola froga dezaket nire adina?

Pertsonen adina, jaiotzako erregistro-ziurtagiriarekin egiaztatzen da.

Erregistro Zibileko ziurtagiri guztiak (jaiotzakoak, ezkontzakoak, herio-tzakoak, eta abar) literalak edo laburpenak izan daitezke.

- Ziurtagiri literala, inskripzioan agertzen diren datu guztien kopia osoa da.
- Laburpen-ziurtagiria, inskripzioko funtsezko datuen kopia da (ez dira datu guztiak adierazten).
- Ziurtagiri literaletan nahiz laburpen-ziurtagirietan, pertsona baten jaiotza (heriotza, ezkontza...) ziurtatzen duten Erregistroko funtzionarioen sinadura agertuko da, horregatik baitira agiri publikoak.

FAMILIA-LIBURUA

Familia beraren (ezkontzako, ezkontzarik gabekoa, edo adopziokoa) seme-alaben jaiotzak eta, hala dagokionean, haien gurasoen ezkontza barne hartzen dituen liburu ofiziala da.

BIZI-AGIRIA EDO EGOERA-AGIRIA

Pertsona bat bizirik dagoela edo ezkongai, dibortziatua edo alarguna dela adierazten duten erregistro-adierazpenak dira.



IV. Izena

Pertsonaren funtsezko eskubidea

Nork bere izena izateko eskubidea, pertsonaren nortasunaren funtsezko alderditzat hartzen da.

Izenaren eta abizenen arteko ezberdintasuna

- Izena aitak eta/edo amak askatasun osoarekin aukera dezakete, Legeak ezartzen dituen mugekin.
- Abizenak, ordea, aitarenak eta/ edo amarenak dira.

Izena jartzeko dauden mugako

Legeak, pertsonaren duintasunaren aurka doazen edo pertsona identifikatzeko egokiak ez diren izenak jartzea debekatzen du, hala nola:

- Hizkuntza: gaztelaniaz edo Espainiako Estatuan ofizial den edozein hizkuntza ofizialetan (katalana, euskara, galegoa...). Euskaltzaindiak egindako euskal izendegia bat badago.
- Orokorrean, atzerriko izenak baimentzen dira, beti ere haurarentzat iraingarriak ez badira edo identifikazioari buruzko nahasterik sortzen ez badute.
- Ezin zaie izen bera jarri bizirik dauden bi anai-arrebari.
- Pertsonaren sexu-identifikazioa nahasten duten hitzak.
- Ezin dira abizenak erabili izen propio gisa.
- Erregistro Zibilak izen jakin bat jartzeko ezartzen dituen mugen aurka errekurtoa jar daiteke Erregistroen eta

Notariotzaren Zuzendaritza Nagusiaren aurrean, eta erakunde horrek errekurtoari uko egiten badio, ebazpen horren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtoa jar daiteke Epaitegian.

IZENA ALDATZEA

Izena alda daiteke, legean aurreikusitako arrazoiren batengatik egiten bada, hala nola:

- a) Gaztelaniazko izena Espainiako Estatuko beste edozein hizkuntza ofizialetara (katalana, euskara, galegoa...) itzultzea. Adibidez: Juana itzuli egin daiteke, eta euskarazko Jone jarri.
- b) Berezko izena normalki erabiltzen den izenarekin aldatzea. Kasu horretan, izen hori aspaldidanik eta beti erabiltzen dela frogatu behar da (udal-errolda, izen horrekin dituen dokumentuak, eta abar. Adibidez, erregistroan Adoración izenarekin inskribituta dago baina bere ohiko izena Dora izan da, azken horrekin agertzen baita bankuko eta administrazioko dokumentuetan, txarteletan, eta abar).
- c) Legezko xedapenen aurka doan izena aldatzea eska daiteke, adibidez iraingarria denean edo pertsonaren duintasunaren aurkako kontzepturen bat adierazten duenean.



V. Abizenak

Zer dira?

Pertsona baten identifikazioaren legezko elementu eta baldintza nagusia bi abizen dira, aitarena eta amarena.

Nola jartzen dira?

- Seme-alabek, legez beren gurasoak diren pertsonen (aitaren eta amaren) abizenak dituzte.
- Abizenen ordenak berdin dio, lehenik aitarena nahiz amarena jarriz, gurasoek hala erabakita, eta kontuan izan behar dute legearen arabera gainontzeko seme-alabek ordena horretan izan beharko dituztela.

Adibideak

- 1) Seme-alaba ezkontzaren barrukoa bada, edo ezkondu gabeko bikote batena, baina bi gurasoek seme-alabatzat aitortu badute, aitaren eta amaren edo amaren eta aitaren abizenak izango ditu, haiek aukeratzen dutenaren arabera.
- 2) Seme-alaba ezkontzarik gabeko elkarketa batetik jaio bada eta guraso bakar batek aitortzen badu seme-alabatzat, haren abizenak bakarrik izango ditu (Adibidez: Ana Pérez Lópezek seme bat izan eta aitak ez du semetzat aitortu. Semeak amaren abizenak izango ditu: Pérez López. Kasu honetan, legeak seme-alabaren abizenen ordena aldatzea baimentzen du: López Pérez).
- 3) Seme-alaba adopziozkoa denean, adoptatu duen

pertsonaren (norbanakoa bada) edo bikotearen abizenak izango ditu.

- 4) Aitaren eta amaren nortasuna ezezagunak direnean, Erregistro Zibileko arduradunari dagokio jaioberriari abizenak jartzea.

ABIZENAK ALDATZEA

Legeak ondoko kasuetan bakarrik baimentzen du abizen-aldaketa, eta beti ere alde aurretik Espedientea egin ondoren:

- a) Seme-alabatasuna aldatzeagatik (adibidez, adopzioa, seme-alabatzat aitortzea, eta abar).
- b) Abizenen ordena alderantzteagatik (bigarrena zena orain lehenengoa izango da. Adibidea: lehena Martínez eta bigarrena Alday ziren; orain, lehena Alday eta bigarrena Martínez dira).
- c) Abizenak euskal grafiara egoki-tzeagatik.
- d) "De" partikula sartzeagatik, izen berezia edo propioa den abizen baten aurretik (adibidez, Luisa de Juan), izenaren eta abizenaren artean nahasteak saihesteko.
- e) Seme-alabei abizenak aldatzea, gurasoen abizenak aldatu direlako (adibidez, Luis Gómez Salazar izeneko aita batek bere lehen abizen bezala Salazar jarri du. Aldaketa honek seme-alabengan eragina du, eta une horretatik aurrera lehen abizena Salazar izango dute,

eta ez Gomez).

Adin-nagusitasunetik, edo eman- tzipaziotik aurrera, seme-alabek beren gurasoen Aldaketaren ondoriozko abizen-aldaketa espreski onartu behar dute.

Kontuan izan behar da:

- Abizenen ordena behin bakarrik alda daitekeela. Beraz, behin aldaketa egin ondoren, ezin da lehengo egoerara itzuli.

Horregatik, aldaketa horrek ekar ditzakeen onurak eta eragozpenak arreta handiz aztertu behar dira, batez ere erakundeak kontuan izanik (Udalak, Erregistroak, Ogasuna, eta abar).

Nola egiten da abizen-aldaketa?

- Abizen-aldaketa eskatzen duen pertsonak adinduna izan behar du.
- Aldaketa eskatzen duen pertsonaren bizilekuko Erregistro Zibileko arduradunaren aurrean egiten da.
- Espediente bat tramitatzen da.
- Abizenak alderantziz erabiltzen ari direla adierazten duten frogak aurkeztu behar dira, aldaketan eskatzen den bezala (ziurtagiriak, bankuko agiriak, gutunak, eta abar).



VI. Herritartasuna

- Herritartasunaren bitartez, pertsona baten eta Estatu baten arteko erlazio juridikoa ezartzen da.
- Herritartasunak, eskubideak (adibidez, hauteskundeetan bozkatzeko eta bozkatua izateko eskubidea, babes diplomatikoa, eta abar) eta betebeharrak (adibidez, zergak ordaintzea) ematen ditu.

Nork du herritartasun espainiarra?

Legearen arabera:

- a) Herritartasun hori duen aitaren edo amaren seme-alabek.
- b) Guraso atzerritarrak izanik, Estatuan jaio diren seme-alabek, gurasoetako bat behintzat Espainian jaioa bada.
- c) Espainian jaiotakoek, gurasoak ezezagunak baldin badira.
- d) Espainiar herritar batek adoptatutako pertsonak, 18 urtetik beherakoak badira.

Pertsona atzerritar batek espainiar herritartasuna lortzeko baldin-tzak

Espainiar herritartasuna lortu nahi duela adierazteaz gain, atzerritarrak ondoko baldintzak bete behar ditu:

- a) Aldi jakin batez Espainian bizitzea, hau da:
 - hamar urte, arau orokor gisa.
 - bost urte, asilatuak edo errefuxiatuak izanez gero.
 - bi urte, iberoamerikarrak, Andorratarrak, Filipinarrak, Portugaldarrak edo sefardiak direnak.

- Urte bat, Espainiar lurraldean jaiok izanik, 2 urtez espainiar herritar baten tutoretza, zaintza edo harrerapean egon direnak, edo espainiar herritar baten alargunak.
- b) Egoitzak legezkoa izan behar du (egoitza-baimenarekin).
- c) Atzerritarraren egoitzak jarraitua izan behar du, eta berak eskaera egin artekoa, etenaldirik gabe.
- d) Atzerritarrak gizalegezko portaera eta gizarteratze-maila egokia egiaztatu beharko du (adibidez: elkarbizitza, lana, elkarteetan parte hartzea, eta abar).

Herritartasun-espeditatearen tramitazioa

- Lehendik adierazi diren baldintzak betetzen dituen eta espainiar herritartasuna lortu nahi duen atzerritarrak, eskaera bere bizilekuko (erroldatuta dagoen lekuko) Justizia-Jauregian bulegoak dituen Erregistro Zibileko Arduradunari aurkeztu behar dio, espainiar lurraldean legez eta jarraian egoitza izan duela, gizarteratuta dagoela, eta gainerako baldintzak betetzen dituela adierazten duten agiri guztiak erantsiz.

Erregistro Zibilean Administrazio-espeditatea egiten da, eta herritartasuna ematen edo ukatzen duen organora, hau da, Justizia Ministeriora bidaltzen da.

- Herritartasuna ukatzen duen administrazio-ebazpenaren aurka, atzerritarrak errekurtsioa jar dezake auzitegi arruntan aurrean.
- Pertsona bati espainiar herritartasuna eman ondoren, pertsona horrek jatorrizko espainiarren eskubide eta betebeharrak berberak izango ditu.

Espainiar hiritar batekin ezkondu den pertsona atzerritar batek espainiar herritartasuna lortzea

Espainiar hiritar batekin ezkondu den atzerritarrari, herritartasuna eska-tzen duen unean urte bete ezkondu den eramatea eta judizialki edo izatez bananduta ez egotea eskatzen zaio.

Herritartasun bikoitza

- Bi Estatutako nazionala den pertsona baten egoera da (adibidez, Espainiarra eta Alemana; Espainiarra eta Kolonbiarra, eta abar).
- Egoera hori bi eratan gerta daiteke: ezkontza misto bateko seme-alaba izateagatik (gurasoetako bat espainiarra da eta bestea beste herritartasun batekoa), edo bestela, espainiarra den pertsona batek beste herritartasun bat lortzen duenean, aurrekoa galdu gabe (adibidez, Espainiaren eta iberoamerikako herrien arteko herritartasun bikoitzeko hitzarmenen indarrez).

Espainiar herritartasuna galtzea

Legearen arabera:

- a) Pertsona horrek, espainiar herritartasunari uko egitea galdatzen duen beste herritartasun bat lortzen duenean.
- b) Behin-betiko epaiaren ondorioz, espainiar herritartasuna lortu duten pertsonentzat soilik (ez ordea jatorrizko espainiarrentzat, izan ere, horiek herritartasuna beren borondatez bakarrik gal dezakete, inola ere nahitaez).
- c) Jatorrizko hiritarrek espainiar herritartasuna beren borondatez galtzen dute, atzerrian bizi izanik beste herritartasun bat lortzen dutenean eta azken hori lortu eta 3 urteko epea igarotzen denean.
- d) Iberoamerikako, Andorrako, Filipinetako eta Portugalgo herritartasuna lortzeak, ez dakar automatikoki espainiar herritartasuna galtzea (herritartasun bikoitzeko hitzarmenen indarrez).

2. Adin-nagusitasuna eta emantzipazioa

Zer da emantzipazioa?

- Adingabetasunaren eta adin nagusitasunaren (18 urte) bitarteko egoera da.

Helburua

- Adingabeari bere buruaz eta bere ondasunez pertsona adinduna balitz bezala arduratzeko ahalmena ematen dio, garrantzi juridiko handia duten egintzetan salbu, bere ondarearentzat ekar dezaketen arrisku-mailagatik. Kasu horietan, emantzipatzen denak bere guraso edo tutoreen baimena izan beharko du.
- Legeak, zehazki, ondoko hauek adierazten ditu:
 - dirua mailegu baten bidez lortzea;
 - merkataritza edo industriarako altzariak, higiezinak edo establezimenduak edota oso balio handia duten objektuak hipotekatu edo sal-tzea.

Kasu horietan, legeak, emantzipatu den adingabearen baimena izateaz gain, bere guraso edo tutoreek baimentzea eskatzen du.

Emantzipatzeko erak

a) Gurasoek emanda:

- Kasu horretan, 16 urteko seme-alabak onartu egin behar du.
- Notarioaren aurreko eskritura publikoan edo bi alderdiak bizi diren lekuko Erregistro Zibilean bertaratzuz egin daiteke.
- Emantzipazioaren agiria Erregistro Zibilean inskribitu behar da (eman-tzipatu den adingabearen jaiotzaren inskripzio-orrian agertuko da, er-tzeko ohar batean).

b) Epailleak emanda:

Epailleak, 16 urtetik gorako seme-alabari emantzipazioa emango dio, ondoko egoera hauetakoren batean aurkitzeagatik eskatzen duenean:

- Guraso-agintea duen gurasoa (aita edo ama) beste pertsona batekin ezkontzen denean edo pertsona horrekin bizi denean.
- Gurasoak bananduta bizi direnean.
- Guraso-agintea gauzatzea eragozten duen edo larriki oztopatzen duen beste egoeraren bat gertatzen denean.

b) Ezkontzeagatik:

Epailleak adingabeari ezkontzeko baimena ematen dionean (14 urtetik gorakoa izan behar du), emantzipazioa automatikoa da.

Zer da adin-nagusitasuna?

- 18 urte betetzerakoan lortzen da. Une horretatik aurrera, pertsonak jarduteko ahalmen osoa eskuratzen du, eta beraz, ez du behar bere gurasoek ahalmen hori osatzea edo beren laguntza jasotzea (mota guztietako negozio juridikoak egin ditzake: auzitegietan bere kabuz edozein akzio erabil dezake, eta abar).
- Guraso-aginteari amaiera ematen dio.
- Une horretatik aurrera, pertsona hori soilik ebazpen judizial baten bidez deklaratu dezakete ezgaitua, alegatzen diren ezgaitasun-kausak frogatu beharko dituen prozedura baten ondoren.

Adibideak

1. Emantzipatuta dagoen seme-alaba, etxebizitza baten jabea da. Etxebizitza hori saldu al dezake?
Etxebizitza saltzeko, bere gurasoen baimen espresa izan beharko du.
2. Emantzipatuta dagoen seme-alaba batek, etxebizitza bat dohaintzan jaso al dezake?
Bai, eta gainera, dohaintza onartzeko, ez du bere gurasoen baimenik beharko.

3. Bizilekua eta auzotasun zibila

BIZILEKUA

- Pertsona edo familia baten ohiko egoitza da (etxe bat, etxebizitza bat, etxola bat eta abar). Bertan bere bizitza pribatua garatzen du.
- Bizilekua garrantzitsua da, pertsona fisikoen eta juridikoen (enpresen) betebeharrak betetzeko eta eskubideak erabiltzeko (hala nola zergen ordainketa, Epaitegien eta erakunde ofizialen zitazioak, hauteskundeetan botoa ematea eta abar) lekua finkatzen baitu
- Bizilekua, dagokion Udal Erroldako inskripzioaren bitartez frogatzen da.
- Pertsonen bizilekua ezin bortxatuzkoa da, hau da, pertsona edo agintari bat bertan sartzeko titularraren baimena behar da edo, halakorik ezean, epailearen idatzizko baimena.

Adibideak

- Gasteizen bizi den eta Mallorcan udako etxe bat duen pertsona baten kasuan, zein hartzen da bizilekutzat?

Pertsona edo familia batek egoitza bat baino gehiago badu, bizilekua ohiko egoitza duen lekuari dagokiona izango da (Gasteiz kasu honetan). Pertsona batek helbide bakarra izan dezake, zenbat etxe dituen kontuan hartu gabe.

- Senarra eta biok ezkondu ginenean Bilbon finkatu genuen egoitza nahiz eta senarra, lana dela eta, astegunetan Burgosen bizi den. Egoera honek bizileku ezberdinak ditugula eta senar-emazte gisa bizileku bakar bat izaterik ez dugula esan nahi al du?

Kasu hauetan, senar-emazteen bizilekua ohiko egoitza finkatuta duteneko lekua izango da (Bilbo), lana dela eta bikotekideek leku ezberdinetan bizi behar izatearen kaltetan izan gabe. Beraz, kasu honetan, senar-emazteek bizileku bakarra dute.

AUZOTASUN ZIBILA

- Auzotasuna pertsona baten eta Estatu barruko lurralde jakin baten arteko lotura da. Pertsona lurralde horretan dagoen berriazko legeriari lotuta geratzen da.
- Auzotasunak pertsona bati aplikatzeko legeria finkatzen du: Zuzenbide Zibil Komuna edo Foru Zuzenbidea.
- Espainiako zenbait autonomia-erkidegok (Aragoik, Balearrek, Kataluniak, Galiziak, Nafarroak eta Euskadik) Zuzenbide Zibil Komunaz gain Foru Zuzenbidea ere dute.

Hala ere, Erkidego horietan ere Foru Eskubidea ez da lurralde osoan aplikatzen. Bizkaian adibidez, Forua lurraldearen zati batean besterik ez da aplikatzen (hiribilduetan –Bilbon adibidez– ez da aplikatzen). Araban berriz, Aiarako Forua Aiarako Ibarrean besterik ez da aplika-tzen.

- Horrela, pertsona batek auzotasun zibil komuna badu Zuzenbide Zibil Komuna aplikatuko zaio eta foru-auzotasuna badu berriz, lurraldeari dagokion Foru Zuzenbidea aplikatuko zaio.
- Foru Zuzenbideak arautzen dituen arlorik garrantzitsuenak senar-emazteen erregimen ekonomikoari eta jaraunspenei lotutakoak dira.

Nola eskuratzen da auzotasun zibila?

- a) Lurralde horretan jaio izanaren ondorioz (seme-alabek gurasoen auzotasun zibila dute).
- b) Bertan 2 urtetan bizi ondoren. Kasu honetan, pertsonak auzotasun zibila eskuratzeko borondatea adierazi behar du Erregistro Zibileko arduradunaren aurrean.
- c) Bertan 10 urtetan bizi ondoren (aurkako deklaraziorik gabe).

Adibideak

- Foru-lurralde bateko –Getxoko– guraso bizkaitar batzuen semeak Ge-txoko auzotasun zibila du (eta, beraz, Bizkaiko Foru Zuzenbidea aplikatzen zaio). Pertsona hau auzotasun zibil komuneko –Bilboko– beste batekin ezkontzen bada, auzotasun zibil komuna –Foruari lotu gabekoa– aukera dezake eta, horrela, bi ezkontideak legeria zibil komunari (Kode Zibilari) lotuta geratuko dira eta honek aginduko du araubide ekonomikoaren eta ondorengotzen kasuan.

4. Pertsonen heriotza

Pertsona baten heriotzak garrantzi juridiko handiko ondorioak ekarriko ditu, batez ere pertsona horren ondorengotzari eta oinordetzari dagokienez.

Zer egin behar da pertsona bat hiltzen denean?

- Heriotza, mediku batek ziurtatu behar du (normalki zendua bere azken gaixotasunean zaindu duena). Ziurtagiria ondoko datu hauek adieraziko dira: izena, abizenak, medikuaren identifikazio-datuak, ordua eta lekua.
- Heriotza-ziurtagiria, zendua bizi zen lekuko Erregistro Zibilean (Heriotzen Sekzioan) inskribitzen da.
- Heriotzaren inskripzioa egitera behartuta daude:
 1. Zenduaren senitartekoak edo etxe bereko biztanleak.
 2. Bestela, bizilagunak.
 3. Heriotza etxetik kanpo gertatzen bada, senitartekoak, egoitzako buruak edo heriotza gertatu den etxeko familia-buruak.
 4. Gobernu-agintariak.
- Heriotza-adierazpena berehala egin beharko da (lurperatu edo erraustu baino lehen).
- Heriotza biolentoa gertatzen denean (hilketa, istripua, eta abar) edo heriotza kausa naturalen ondorioz gertatu ez denaren susmoa dagoenean, Guardiako Epailleak gorpua altxatzeko aginduko du eta ondoren hildako pertsonaren autopsia egingo da.
- Heriotza-inskripzioa egin ondoren, lurperatzeko edo errausteko baimena ematen da, heriotza gertatu eta gutxienez 24 ordu igaro ondoren.

Adibideak

- Jon-ek bizilekua Gasteizen du, baina Parisen hil da oporretan zegoelarik. Non inskribitu behar da heriotza?

Jon-en heriotza, Espainiatik kanpo gertatu denez gero, Pariseko Espainiar Kontsuletxeko Erregistroan inskribitu behar da, eta erregistro horrek, era berean, Espainiako Erregistro Zibil Zentralari (Madrilen dago) jakinaraziko dio. Beraz, Jon-en heriotza-ziurtagiria eskatzeko Madrilgo Erregistro Zibil Zentralera jo behar da (senitartekoaren edo eskaera egiten duen pertsonaren bizilekuko Erregistro Zibilaren bitartez egin daiteke).

- Nire senarraren autopsia ez egitea eska al dezaket, bere buruaz beste egin duenaren susmoa dagoenean?

Ez, izan ere, heriotza biolentoaren edo kausa naturalen ondorioz gertatu ez denaren susmoa dagoenean, epailleak gorpua altxatzeko agintzea eskatzen baitu legeak, gorpua aurkitu duten lekura bertaratuz, bai eta ondoren Auzitegiko Medikuek gorpua autopsia egitea eskatu ere.

5. Pertsonen desagertzea: legezko absentzia. Heriotza-adierazpena.



1. Legezko absentzia

1. Absentzia, pertsona bat bere bizilekutik edo bizi zen azken lekutik desagertu eta non dagoen jakitea ezinezkoa denean gertatzen da. Eragin juridikoa izateko, Epailearen Ebazpen baten bidez adierazi beharko da.
2. Absentzia-adierazpena egiteko eskatzen diren epeak:
 - Urte bete, desagertu den pertsonaren azken berria izan denetik.
 - Hiru urte, beste pertsona bati bere ondasunak administratzeko ahalordea eman dionean.
3. Zer egin behar da pertsona bat goian adierazitako aldiari desagertuta dagoenean?
 - Lehen Auzialdiko Epaitegiari "Legezko Absentzia-Adierazpena" eskatu behar zaio.
 - Absentzia-adierazpen hori ondorengo pertsonak eskatu behar dute:
 1. Desagertuaren ezkontideak, legezko banantzerik ez dagoenean (Epaia-ekin).
 2. Fiskalak, egoera horren berri duenean esku hartu behar duelako.
 3. Desagertuaren ondasunengan eskubideren bat duen beste edozein pertsona batek (adibidez, hartzekodun batek).
 - Desagertuak ondasunik bazeukan, Epaileak pertsona bat izendatzen du desagertuaren ordezkari izateko eta bere ondasunak administratzeaz arduratzeko.
 - Legezko absentzia-adierazpena Erregistro Zibilean inskribitzen da.
 - Legezko absentiaren egoera hori ondorengo kasu hauetan bertan behera gera daiteke:
 - Desagertutakoa agertzen denean.
 - Desagertutakoaren heriotza frogatzen denean.
 - Desagertutakoa legez hildakotzat jotzen dutenean.

Dokumentu horretan, Lehen Auzialdiko Epailearen Ebazpenak pertsona bat hildakotzat jotzen du ondoko kasu hauetan:



II. Heriotza-adierazpena

1. Desagertzen denean eta hurrengo 10 urteetan haren berririk izan ez denean, edo hurrengo 5 urteetan, desagertua 75 urtetik gorakoa bada.
2. Bizitzaren aurkako indarkeriagatik hiltzeko arrisku larriaren ondorioz desagertzen denean, urte betez. Hondamendiaren kasuan, hiru hilabetez desagertuta dagoenean.
3. Hondoratu den ontzi batean bidaiari edo tripulatzaille gisa bidaiatuz desagertu denean, eta hondoratzea edo desagerpena egiaztatu eta hurrengo hiru hilabeteetan ez bada pertsona horren berririk izan.
4. Hondamendia jasan duen aireontzi (hegazkin) batean bidaiari edo tripulatzaille gisa bidaiatuz desagertu denean eta hondamendia egiaztatu eta hurrengo hiru hilabeteetan pertsona horren berririk ez denean izan, edo aurkitu diren giza hondarrak identifikatzea ezinezkoa izan denean.
5. Gerran militar edo zibil gisa parte hartuz desagertu denean.
6. Epaileak desagertu den pertsonaren "Heriotza-adierazpena" ematen duenean, ebazpen hori Absenteen Erregistro Zibilean (Madril) inskribi-tzen da.

Adibideak

- Izaskunek ez daki senarra non dagoen duela 15 urtez geroztik. Orain berriro ezkondu nahi du. Nola legeza dezake bere egoera?

Izaskun ezkondua dagoenez eta bere senarra desagertuta dagoenez, bigarren aldiz ezkondu ahal izateko egin behar duen lehenengo gauza, Lehen Auzialdiko Epaileari bere senarraren Heriotza-adierazpena eska-tzea da. Ebazpena eman ondoren, Absenteen Erregistro Zibilean (Madril) inskribitzen da, eta une horretatik aurrera beste pertsona batekin ezkon daiteke.

- Unai, bere etxetik zenbait urtez desagertuta egon zena, hildakotzat jo zuen epaileak bere emazteak egin zuen eskaeraren ondorioz, eta ondoren bere herentzia tramitatu zen. Orain Unai etxean agertu da. Ba al du eskubideren bat?

Unai bere jabetzako ondasunak gaur egun dauden egoeran berreskuratzeko eskubidea du. Saldu egin badira, lortutako prezioa edo salmentaren emaitzarekin eskuratu dena berreskuratzeko eskubidea du. Ez du desagertu zenetik agertu den arte bere ondasunek sortu dituzten interesak, errentak eta emaitzak eskuratzeko eskubiderik.


- Epailak Ana eta Mikelen aita hildakotzat jo zuen. Egoera horretan, anai-arrebek aitaren herentzia tramitatu al dezakete?


Legeak hori egiteko baimena ematen du, hala ondorengotza testamentuduna denean nola testamenturik gabeko ondorengotza denean.

Edonola ere, oinordekoek ezin izango dituzte hildakotzat jo denarengandik (kasu honetan, aita) oinordetutako ondasunak eskuratu, epailak heriotza-adierazpena eman eta 5 urte igaro arte.

- Jose Luis legez absentetzat jo dute. Izan ditzakeen oinordekoek herentzia kitatzeko aukerarik ba al dute?

Ez, legezko absente-adierazpenak ez du oinordetzaren ondorengotza irekitzeko baimenik ematen, horretarako legezko heriotza-adierazpena lortu behar baita.





justizia-administrazioko liburuxken fitxategi-zerrenda

1. Justizia-administrazioa. Administrazio publikoa eta herritarrak.
2. Gatazkak ebazteko era alternatiboak.
3. Oinarrizko lan-gida.
4. Atzerritarren eskubideen gisa.
5. Erregistro zibilaren gida. Adin-nagusitasuna eta emantzipazioa. Bizilekua eta auzotasun zibila. Heriotza. Pertsonen desagertpena.
6. Ondorengotzak eta jaraunspenak.
7. Jabetza-erregistroa eta merkataritza-erregistroa.
8. Hiri-errentamenduak.
9. Prozedura zibileko lege berriaren prozedurak.
10. Salaketak eta lekukoak jurisdikzio penalean.
11. Defentsa eta ordezkartza epaitegien aurrean.
12. Doako laguntza juridikoa.
13. Guraso eta seme-alaben arteko harremanen gida. Guraso-agintea. Filiazioa. Tutoretza eta tutorearen irudia. Ezgaitzea. Defendatzaile judiziala. Adopzioa. Harrera.
14. Adingabekoen erantzukizun penala.
15. Tratu txarrak eta etxeko indarkeria. Sexu-askatasunaren aurkako delituak .
16. Bikote-harremanen gida. Ezkontza eta bikote-bizikidetzak. Guraso bakarreko familiak. Banantzea, dibortzioa eta baliogabetasuna. Banandu eta dibortziatzeko prozeduraren aldiak.
17. Familia-harremanetik eratorritako pentsioak. Seme-alaben aldeko elikagai-pentsioak. Konpentsazio-pentsioak banantze edo dibortzio kasuetan. Senideen artean elikatzeko obligazioa.
18. Laguntza bidezko ugalketa.